



Noticias de Gipuzkoa

Gipuzkoa Reala Cultura Actualidad Opinión Deportes Economía Vivir ON Participación Servicios

Politica Sociedad Sucesos Unión Europea Mundo Albisteak Deusto Positivos en coronavirus

Noticias de Gipuzkoa » Actualidad » Sociedad

Laguntzen jarraitzeko baliabide bila

SARA IBARGUREN | 20.07.2020 | 23:52



Irene Tapiá, DYA Gipuzkoako presidentea, itxialdi garailan herritar bati erosketak etxera eramaten.

DYA Gipuzkoak '#AlertaHoria' izeneko kanpaina jarri du abian instituzioei elkarteak pandemiari zehar gastatu duen dirua eskatzeko, gipuzkoarrei euren zerbitzuak eskaintzei segitu ahal izateko helburuarekin.

Azken hilabeteetan DYA Gipuzkoako boluntarioak ez dira gelditu. COVID-19ak sortutako egoera lazgarria aurrera eramaten laguntzeko giltzarria izan dira eta horren eredu da, adibidez, itxialdian zehar behar zuten pertsoneri janaria eta sendagaiak etxera eramatea, adineko pertsonen irteteko baimena eman zieten pase bat ematera joateko konpainia eskaintzea edota 40.000 etxetara deitzea norbaitek laguntza behar ote zuten jakiteko.

Baina norbanakoei ez ezik, instituzioei ere eskaini die laguntza elkarteak. "Pandemiaren hasieran, Osakidetatik deitu ziguten buzoak, NBE-ak (Norbera Babesteko Ekipamenduak), eta gainontzeko materiala bageneukan galdetzeko. Gustura eman genizkien, Osakidetza bere mediku, erizain eta gainerako langileentzat behar baitzuelako. Guztira 1000 buzo inguru eman genizkien eta orain itzultzeko eskatu diegu, horrelako gauzak birjarri behar baititugu", azaldu dio egunkari honi Irene Tapiak, DYA Gipuzkoako presidentea.

Oraingo ez diete ezertxo ere itzuli eta elkarteak baliabideak behar dituela ikusita, **#AlertaHoria** kanpaina jarri du abian, **Eta DYArri nork laguntzen dio?** lelopean. "Orain arte sekula ez dugu ezer eskatu. Beti moldatu izan gara gipuzkoarrek emandako diruarekin eta beti eduki izan dugu argi beraiek emandakoa beraiantzat dela. Baina uste dut orain instituzioek erantzun behar dutela eta diruz lagundu behar gaituztela", azpimarratu du Tapiak.

Izan ere, DYAk orain arte gipuzkoarrek emandako dirua baliatu du materiala erosi eta beraien zerbitzuak eskaintzeko. Tapiá oso eskertuta dago herritarren laguntzarekin: "Anbulantzia edo furgonetan gaudenean, askotan etortzen zaizkigu pertsona helduak DYArekin kolaboratzen dutela esatera. Nik orduan nola lan egiten dugun erakusten diet, beraiek ematen diguten dirua zertarako erabiltzen dugun jakitea asko gustatzen baitzaie".

Batez ere, pertsona helduak omen dira erakundea diruz laguntzen duten gipuzkoarrek, baina batzuk ezin izaten dute nahi beste diru eskaini. "Hainbatek pena handiz esaten digute ezin digutela lagundu. Niri, pertsonalki, hunkitu egiten nau adineko pertsonen izan dezaketen pensio eskasarekin guri hamar euro emateak, batzuentzat ekintza horrek asko suposatzen baitu", dio Tapiak.

Horrenbestez, instituzioei laguntzeko garaia iritsi zaiela uste du. "Betik esaten dute laguntzak eskain-tzen dizkietela elkartei, baina guri ez zaigu ezertxo ere iristen", deitoratu du. Kanpaina hasi zutenetik, larrialdi zerbitzuetatik 3.000 euro jaso dituzte eta bi ozono makina erosi dituzte ibilgailuak desinfektatzeko. "Desinfekzio asko egiten ari gara eta zerbitzu bakoitzaren ostean guztia garbitu behar izaten dugu, inongo arazorik egon ez



Sociedad



Sanidad contabiliza 201 brotes activos, 15 más que el viernes

Al menos el 10% están relacionados con el ocio nocturno, que "amplifica" la transmisión del virus



Unibertsitateko ikasleen kopurua hazi egin da Euskadin



La OMS advierte del impacto del virus en los pueblos indígenas



La vacuna de Oxford produce una fuerte respuesta inmune

Noticias de Sociedad

dadin", azaldu du. "Garrantzi handia ematen diogu gure boluntarioak arriskuan ez jartzeari, baina ezin dugu materiala birjarri ez badigute laguntzen", gehitu du.

Hilabete guzti hauetan zehar gastu handiak izan ditu DYAK eta, Tapiak dioenez, Kutxa Fundazioak emandako diruarekin jarraitu ahal izan dute lanean: "Gu ez gara enpresa bat eta ez dugu dirurik jendea mantentzeko. Ematen digutena berriz inbertitzen joaten gara".

GERATU GABE LANEAN Gipuzkoan lan egiteaz gain, EAEko gainerako probintzietan ere aritu da lanean DYA Gipuzkoa. "Kilometro pila bat egin ditugu alde batetik bestera maskarak eta pantailak garraiatzen. Gainera, osasun-langileak ere eraman izan ditugu Gipuzkoatik Bizkaiara. Han behar zituzten pertsona horiek eta ibilgailu gehiago ez erabiltzeagatik eta kutsatzeagatik, guk eraman genituen", nabarmendu du.

Horrez gain, Gipuzkoako Elikagaien Bankuari laguntzen ere aritu dira eta Foru Aldundiak laguntza eskatu dio DYARI arrantzaleei PCR probak egiteko Pasai San Pedron, Getarian eta Hondarribian. "Antxoaren eta hegaluzearen kanpaina egin genituen, eta oso ongi moldatu ginen", azaldu du. Orain, aldiz, zaharren egoitzetan laguntzeko eskatu diete eta "gustura" egingo dutela dio. "Baina ordainsaria nahi dugu, horrek guztiak diru asko balio baitu. Instituzioek dute diru gehien, baina ez digute ematen", azpimarratu du Tapiak.

Azaldu duenez, dagoeneko bilera bat izan du DYAK Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta bihozkada ona du horren ondoren. "Uste dut Maite Peñak asko lagunduko digula eta pozik gaude horregatik. Ea orain Eusko Jaurlaritzak ere laguntza eskatzeaz gain, eskaini ere egiten digun", adierazi du.

LAGUNTZEKO MODUA Une honetan, kanpainaren berri sare sozialetan ari da ematen elkarteak, ez baitu dirurik behar dutena aldarrikatzeko ekin-tzak egiteko kalean. DYARI laguntzeko metodo bat baino gehiago daude: Bizum bidez mugikorretik dirua bidal daiteke 38071 zenbakira edota dyagipuzkoa.com webgunearen bidez galdetegi txiki bat bete eta ekarpena egin daiteke.

Batez ere, adineko pertsonak dira DYA Gipuzkoari dirua eman izan diotenak

eta elkarteak instituzioen txanda dela uste du orain

Más información

Zumaiak erantzukizuna eskatu du COVID-19aren aurrean.
Olabarrieta eta Murgia arteko komun publikoa, martxan.
Boluntario taldea berrantolatzeko bilera deitu du Udalak.

Temas relacionados:

[Azken](#) [Bila](#) [Ematen](#) [Zuten](#)



UROLA
Planes a medida
en el Urola

Lo último

Lo más leído

1. El Jazzaldia de las 2.800 localidades
2. Zurutuza: "El fútbol tiene un sacrificio muy grande"
3. El Gobierno insta a redoblar esfuerzos para impulsar las EPSV de Empleo
4. PNV y PSE allanan el acuerdo pero dejan en el aire la fórmula de gobierno
5. Las restricciones al ocio hostelerero se limitan a los municipios con foco de covid
6. Anoeta se queda sin el carisma del pelirrojo
7. "Esta crisis va a ser un reto para las finanzas públicas"
8. El primer pleno del Parlamento Vasco será el 3 o el 4 de agosto
9. Música gratuita con formato terraza
10. Mikel Merino renovará en breve

[HOME](#) [Gipuzkoa](#) [Reala](#) [Cultura](#) [Actualidad](#) [Opinión](#) [Deportes](#) [Economía](#) [Vivir ON](#) [Participación](#) [Servicios](#)

noticias de Gipuzkoa

Otras webs de Grupo Noticias

Deia
Diario de Noticias
Diario Noticias de Álava
Onda Vasca

Promociones
Publicidad
Suscríbete a Noticias de Gipuzkoa

Suscripción por RSS
Newsletters
Auditada por OJD
Distribución
Trabajos de impresión

